



Eman hegoak euskarari



Izenak eta koloreak

Antzinako greziarrentzat, adibidez, itsasoak ardo kolore iluna zuen

ARITZ GORROTXATEGI

Gauzak izendatzeko lan-gintzan ari ziren aspaldiko gizakiak irudikatu ditut une batez. Nola deitu honi, nola deitu hari? Zeren arabera eman izena gauza bati? Itxuraren arabera? Kolorearen arabera? Soinuaren arabera? Artean ez zegoen Euskaltzaindri edo Akademia arau emailerik.

Pentsatzekoa da gertuko gauzekin hasiko zirela, bizitzeko ezinbestekoak direnekin: jana-ria, ura, loa, arriskua, sua... In-gurunea ezagutzen hasiko ziren hurrena: han, gertu, urruti, har-ria, zuhaitza, senideen ize-nak... Biblian esaten zaigu Jau-nak landako abere guztiak eta zeruko hegazti guztiak lurrez moldatu eta gizonari eraman zizkiola zein izen ezartzen zien ikusteko. Ondorioz, «bizidun

orok gizonak ezarritako izena izango zuen». Hortik, beharba-da, hizkera matxistaren sorrera eta hizkuntza inklusiboarekin dauden gorabeherak. Gabriel García Márquezen 'Cien años de soledad' eleberri ezagunean honela dio narratzaileak: «Mun-dua hain berria zenez, gauza askok ez zuten izenik, eta izen-datzeko hatzarekin seinatu behar ziren». Horrek ukimena-reen lotuko luke hastapena-tako hizkuntza, sentsazioekin. Hatz erakusle eta aldi berean izendatzaileekin.

Etimologiak bide luzea egin du geroztik, baina, kasu asko-tan, duela milaka urteko hitzak erabiltzen ditugu gaur egun. Hitz horietako asko metafora gisa jaio ziren, konparaketa mo-dura, eta denborarekin hitz

arrunt bihurtu dira. Borgesek horren adibide esanguratsu bat eman zigun 'Kenningarrak' ize-neko artikuluan. 'Kenning' (plu-ralaz 'kenningar') delakoa figura erretoriko bat zen, Norvegiako eta Islandiako egungo herrial-deetako IX. mendetik XII.era bi-tarteko literatura-ekoizpenetan erabili zena, beste hitz edo kon-tzeptu batekin baliokidetasuna bilatzen zuen hitz-sorta bat. Ho-rrelakoak bilatzen zituzten or-duko poeta edo rapsoda islan-diarrek, eta berriak sortzen saiatzen ziren. Adibidez, aireari txoriaren etxea esaten zioten; bizarrari, masailezurraren ba-soa; itsasoari, oihalen bidea; odolari, beleen garagardoa...

Urrutirago joanda, aspaldiko gizaki anonimo bat koka deza-kegu zeruaren eta itsas zabala-

ren aurrean jarrita, handitasun hura antzeman nahian eta uler-tu nahian. Nola eman izena gu baino askoz handiagoa eta mu-gagabeagoa den zerbaiti, non amaitzen den ere ez dakigun zerbaiti? Olatuen zarata ala han-ditasuna aukeratu? Uren kolore aldakorra bestela, edo itsasgo-ren mugimenduak, edo urek sa-belean gordetzen dituzten arra-in motak bestela... Noraino hel daiteke hatz erakuslea neurriga-betasun hondogabe horretan? Izenak izana ematen duela esan ohi dugu gurean. Baina ondo-riozta daiteke, halaber, izen ho-rrek muga ere jartzen diola iza-nari. Ezaugarri bat aukeratzeko izena emateko, gainerako ezaugarriak alde batera utziz. Soinua aukera dezakegu kolo-rearen kaltetan; edo itxura ho-betsi, ukimenera eragiten digu-na bazter utzita. Orain bi ha-markada Patziku Perurenak ko-loreak aztertu zituen euskal usarioan. Haren ustez, gauza bakoitza aipatzeko orduan, ko-lorea isilik uzten badugu, gauza horren arima ukatzen dugu. Ko-loreaz ari garela, antzinako greziarrentzat, adibidez, itsa-

soak ardo kolore iluna zuen. Afrika eta Asia artean dagoen itsasoari Itsaso Gorria esaten diogu mendebaldean. Une jakin batean, norbait konturatu zen Iliadan eta Odisean ez dela kolo-re urdina aipatzen. Ez al zuten kolore hori ezagutzen? Misterio bat ere bada kolore gorriarena, nekez esango baikenuke gaur egun itsasoak halako kolorea duenik, eta, hala ere, itsasoko ura eskutan hartzen badugu, esku ahurrean geratzen den li-kidoa gardena dela egiaztatuko dugu. Eskimalek, berriz, hitz bat baino gehiago erabiltzen dute elurra definitzeko. Ez mitoak egozten dizkien bezainbeste, baina bai bat baino gehiago, elur motaren arabera.

Lehen gizaki haietako batzuk imajina ditzakegu itsas ertzetik ibiltzen, begiak itsasoan aingur-ratuta eta erabat liluratuta. Zer eman zien gehien atentzioa ur masa hartatik? Izena aukeratu aurreko isiltasuna suma deza-kegu, bataio haren aurreko go-goeta berezia. Hatz dardartia ai-rean zintzilik, ontzien oihal bat bezala, ur haietatik irristatu nahian.

Ttipien literatura ereiten

KARLA FERNÁNDEZ DE GAMBOA VÁZQUEZ

Esan liteke Ediciones Modernas El Embudo artisau-argitaletxea dela. Liburuaren formatuarekin eta materialtasunarekin esperimentatzera ausartzen den argitaletxe txiki eta independentea izanik, kaleratzen duten obra bakoitza artisautza lan bat da. Eskulangintza horren adibide bikaina da Elena Odriozolak idatzi eta ilustratu berri duen 'Badakit baratzea lantzen' liburua. 'Badakidala' sail-leko hirugarren argitalpen ho-nek, nahiz eta formatu eta eduki aldetik aurrekoekin zen-bait ezaugarri partekatu, be-rritasun batzuk dakartza.

'Badakit bakarrik jantzen' (Denonartean, 2019) eta 'Ba-dakit gosaria prestatzen' (Ed. Mo-dernas El Embudo, 2020) liburue-tan ezagutu genituen neskatoa eta bere txakurra dira istorio ho-nen protagonistak. Saileko lehe-nengo bi obra horietan ekintzak

etxe baten barruan gertatzen ziren; orain-goan, berriz, istorioa baratzean garatzen da. Eszenatoki aldaketak bi nobedade nagusi ekarri ditu. Alde batetik, neskak ez du bere ohiko soineko zuria jantzen, peto bat baizik, baratzea lantzeko jantzi egokiagoa, dudarik gabe. Beste alde batetik, agertokia ez da estatikoa, denbora pasa ahala baratzearen uzta nola hazten den irudikatzen bai-ta. Horrela, antzezlan bat izango balitz be-zala, irakurleak neskatoak ortua nola lan-tzen duen ikusiko du: zuloak egin, kimuak landatu, ureztatu, uzta bildu... Eta, protago-nistarekin batera, prozesu horren plazer (ez hain) txikiez gozatzeko aukera izango du.

Saila osatzen duten beste liburuak beza-la, hirugarren hau ere oso gomendagarria da oraindik era autonomoan irakurtzen ez dakiten haurrentzat. Izan ere, funtzio narratiboa ilus-trazioei dagokie ia erabat, eta oso testu gutxi izan arren, hiztegi aberatsa era-biltzen da. Baratzea lan-tzeko pazientzia behar den be-zala, liburu honek ere patxa-daz irakurtzera gonbidatzen gaitu, ilustrazio bakoitzaren xehetasunak arretaz begira-tzera.



BADAKIT BARATZEA LANTZEN
ELENA ODRIOZOLA
Ed. Modernas El Embudo. 22 orr. 12,65 euro

Liburuaren lekua

ARANTXA URRETABIZKAIA



Txikitan ezagutu nituen etxe gehie-netan ez zegoen libururik. Baten bat izango zuten armairu barruan, baina etxe horietan ez zegoen liburu-z betetako apalik, ez egongelan ez inon. Gurean bai, gurean etxe azpiko arotzak apalategi bat egin zigun, metro bat zabal, metro eta erdi altuera, gutxi gorabehera. Han zegoen aitak erositako entziklope-dia eta beste dozena pare bat liburu.

Gero, gaztaroan, nire inguruko muti-lak soldaduskara joaten hasi zirenean, kontatzen ziguten aldameneko solda-duak etxera bidali nahi zituen gutunak idazten zituztela eta ez banaka, asko baitziren idazten ez zekitenak. «Querida madre: espero que al recibo de la pre-sente...». Horrela hasten omen ziren gu-tun guztiak. Ez dut sekula jakin nork ira-

kurtzen zion amari idazten ez zekien se-mearen gutuna, agian apaizak.

Gaur ez da gure artean analfabetorik gelditzen, etxe guztietan daude liburuak eta, halere, askori iruditzen zaio atzera goazela, iraganean mundua irakurle saiatuz betea zegoela eta oraingo gazteek ez dutela pantaila batean dagoena beste-rik irakurtzen. Gauza da paradisu galdu bat asmatzen dugula, paradisu irakurle ezagutu ez zuen iraganean kokatua.

Jakin badakit sasoi urrun hartan ere bazegoela liburudun etxerik, bazeudela, orduan ere, itsutu arte irakurtzen zuten pertsonak. Hori esaten zidan amak ira-kurtzen harrapatzen ninduenen, bista galduko nuela, ez nuela gehiegi irakurri behar. Hori bai, gure etxean eta inguru-rik hurbilenean ez zegoen eskolagaberik.

Beste kontu bat da zein den gaurko munduan literaturaren benetako pisua, zein leku betetzen duen gizartean. Esan-go nuke gaur egun literatura gutxiri izu-garri interesatzen zaigun zerbait dela, eta gehiengoari tutik ez. Kontakizunak bai, hori gabe ez baikinaren pertsona izan-go. Baina gaur guregana heltzen diren historia gehienak ikus-entzunezkoen bi-tartez heltzen zaizkigu.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Miñan

Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

2 Azken etxea

Arantxa Urretabizkaia. Pamiela

3 Karena

Alaine Agirre. Elkar

4 Ez erran inori

Maddi Ane Txoperena. Elkar

EZ FIKZIOA

1 31 ipuin

anton Txekhov. Elkar

2 Mandamentu hipermodernoak

Iñigo Martinez. Elkar

3 Egunkaria, gizarte zibilaren arrakasta

Joanmari Torrealdei. Elkar

4 Ongi etorri euskal mitologiaren...

Batzuk. Mitologik basoa